

AURKIBIDE

Natura hobeia da zaborrik gabe

Hildako egurraren birziklapena

Panel 1: Pagadian

Panel 2: Urmaelean

Mugan

Eskultura naturalak


Kuxin babesle bat

Hurbileko produktua

Udako jatetxea

Artzainen txabola


**Panel 3: Urbasako egurra,
erabilera askotarikoa**



Natura hobia da zaborrik gabe

Naturan uzten dugun zaborrak
inguruneari kalte egiten dio.

Zabor honek parke natural honetaz
gutxiago gozatzea ere eragiten du.




Hildako egurraren birziklapena


Zure eskuinean hildako egur zati bat
ikusi eta ukitu dezakezu.

Hildako egurra

hildako zuhaitzen egurra da.

Izaki bizidun txiki batzuek,
kakalardoek adibidez,
hildako egur hau desegiten dute.
Egurra lurrarekin nahasten denean
elikagai bihurtzen da lurrarentzat.
Elikagai horrekin landare berriak jaioko dira.





Kakalardo honek **Rosalia alpina** du izena.

Bere larbek hildako egurra
desegin eta jan egiten dute.

Larba hau gero Rosalia batean
bihurtzen den har bat da.

Panel sentсорiala 1:


Pagadian




Baso bat denboraldi bakoitzean

Pagoa Urbasa mendilerroan
gehien aurkitzen dugun zuhaitza da.

Pagadia pagoaz betetako
basoaren izena da.



Horrelakoa da pagadi bat.




Urtean zehar pagadia aldatu egiten da
pagoen itxura aldatzen delako.

Adibidez, kolorez eta formaz aldatzen dira.

Pagadian gertatzen diren aldaketa hauen ondorioz,
pagadia bisitatzen duten pertsonak
sentsazio desberdinak izaten dituzte.

Segun urteko zein sasoi tan bisitatzen duten,
sentsazioa desberdina izango da.



Zer gertatzen da pagadian **udaberrian?**

Udaberrian bizia, soinuak eta koloreak daude.
Landare asko loratzen dira
pagoek oraindik hostorik ez dituztenean.


Hau pagadi bat da udaberrian:



Zer gertatzen da pagadian udan?

Animaliak hostoz beteta dauden
zuhaitzen adarren artean izkutatzen dira.
Udan pagadia leku fresko bat da
eta itzal asko daude.

Hau pagadi bat da udan:



Zer gertatzen da pagadian udazkenean?


Fruitu eta kolore gorrixka asko daude.

Pagoaren fruituak hayukoak dira.

Hayukoak. elikagaiak dira negurako.

Hau pagadi bat da udazkenean:





Zer gertatzen da pagadian **neguan?**

Orbela, hotza eta isiltasuna dago.

Orbela zuhaitzetatik erori diren hostoak dira.

Orbelak koltxoi bat dirudi pagadiaren zoruan.

Hau pagadi bat da neguan:



Panel sentсорiala 2:

Urmaelean




Urbasa mendilerroa zipriztintzen duten altxor txikiak

Urbasa mendilerroa kareharriz osatuta dago.

Kareharria kare asko duen
arroka mota bat da.

Arroka honek 3ezin du ura mantendu.


Horregatik, euri-ura eta elur-ura arroketan sartzen da
eta lur azpitik zirkulatzen du.




Leku batzuetan ura gainazalean geratzen da
eta putzu txikiak sortzen ditu.

Putzu hauek animaliei edaten emateko balio dute.
Landare eta animalia batzuen etxea ere badira.

Orain isilik egotea
eta inguruan duzun guztiari arreta jartzea
gomendatzen dizugu.






Irudi honetan Urbasa mendilerroan dauden
putzu batzuk ikus ditzakezu:



Irudia: turismodeobservacion.com





Mugan

Zuhaixkak eta sastrakak
basoaren eta larrearen artean hazten dira.
Larrea animaliek jaten duten lekua da.


Zuhaixka eta sastraka hauek
animalia askorentzat,
babesleku eta elikagai dira.

Inguruan animalia gutxi jaten daudenean,
hemen gehien hazten den zuhaixka elorria da.





Elorri hau usaindu dezakezu
eta bere fruituak frogatu ditzakezu.
Baina kontuz ibili
elorriak arantzak dituelako
eta zulatu zaitezkeelako.



Eskultura naturalak

Parke honetan


kareharrizko harri asko ikus ditzakezu.

Kareharrizko arrokek kare asko dute.

Hau kareharrizko arroken irudi bat da.




Irudia: Wikipedia



Ura kareharrizko arroketatik igarotzen denean,
ura eta karea elkartzen dira
eta eskulturen antzekoak sortzen dira
oso forma bitxiekin.

Begiratu inguruan duzun paisaia
eta aurkitu eskultura hauek.



Kuxin babesle bat


Goroldioa landare mota bat da.

Goroldioa arroka, harri, zoru
eta enborren gainetik ateratzen da.


Hau goroldioa da enbor baten gainean:



Irudia: Pixabay



Zure ezkerrean
goroldioak estalitako eta babestutako
harkaitz gogor bat ikusi eta uki dezakezu.
Ukitzen baduzu,
kuxin leun bat dirudiela ikusiko duzu.




Hurbileko produktua


Urbasa mendilerroak
baliabide natural asko ditu.

Baliabide hauetako bat
babeslekuak, etxolak
eta abereentzako hesiak eraikitzeko
erabiltzen den arroka da.


Harrobi zahar honetatik
lauzak ateratzen ziren.


Lauzak harri lau eta meheak dira.





Hau Urbasa mendilerroko harrobia da:






Udako jatetxea

Larre bat

belar asko eta zuhaitz gutxi dituen
belardi bat da.

Udan zehar

parke natural honetan
45 mila animalia baino gehiagok
belarra eta beste landare batzuk jaten dituzte.
Horregatik parke honi
udako jatetxea deitzen diogu.



Artzainen txabola


Txabola eraikin sinplea da,
baina erabilera asko ditu.

Abereak zaintzen dituzten pertsonentzako
etxea da.

Txabolak belar ondua eta erremintak gordetzeko
erabiltzen dituzte.


Belar ondua belar lehorra da.

Txabolak gazta egiteko ere
erabiltzen dituzte.






Hau Urbasa Mendilerroko txabola bat da:



Panel sentсорiala 3:
Urbasako egurra,
erabilera askotarikoa





Urbasako egurra, erabilera askotarikoa

Duela urte asko

Urbasako zuhaitzetako egurra erregai gisa erabiltzen zen batez ere. Hau da, egurra erre egiten zen, beroa bezala energia emateko.

1945. urtetik 1985. urtera arte, hau da, 40 urtetan zehar, egurra trenbideak egiteko erabili zen batez ere.





Egurra mendira eramaten zuten
errailen gainean zihoazen
kamioi eta bagoietan.

Orain Urbasako egurra
gauza askotarako erabiltzen da.
Adibidez, surako egurra egiteko,
altzariak egiteko
edo papera egiteko orean bihurtzeko.

Gure buruari galdetu ahal diogu:
Zertarako balioko du etorkizunean
Urbasako egurrak?

